


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Piercing audifonoa entzuteko arazoak dituzten pertsonentzat bideratuta dago. Hauen artean gure produktua bereiziko da ia ikusezina delako. Gure produktua audifonoa eramateaz lotsa dutenentzako bideratuta dago gehien bat, honi esker, arazo hau desagertuko zaie betirako. Gainera diseinu oso politak daude zure estiloa hobetzeko. Estilo handiarekin joatea gustoko dutenentzat produktu ideala da.



Gure produktua ekoiztuko duten pertsonak edozein motatako pertsonak izango dira, gure audifonoak pertsona guztiek erabilgarri edukitzeko fabrikatuak daudelako. Ikerketa sakon baten ostean, esan dezakegu gure produktua edozein adineko pertsona bati oso ondo egokitzen zaiola, lanerako, etxean egoteko, familia eta lagunekin erlazionatzeko... lagunduko diolako.



Gurekin lan egingo duten enpresek izango dituzten onura aipagarrienak, haiek gehiago handitzeko egingo dizkiogun publizitateak izango dira, honekin batera, haiekin egingo ditugun elkarlanak bientzako onuragarriak izango direnak.

Munduan 466 milioi pertsona inguru dute entzumen-galera. Bakarrik Espainia 1.230.000 pertsona sufritzen dute galera hau. Gure produktua Espainian saltzen hasiko da, baina, Sonova enpresarekin lan egingo dugu gure produktua mundu mailara errazago eta azkarrago iristeko asmoz.

